

4.gaia ESTATUAREN ANTOLAKETA

1. ESTATUAREN DEFINIZIOA ETA OSAGIAK

OSAGIAK

- Biztanleria
 - Lurraldea
 - Subiranotasuna
- } Hiru horiek bat egitean ESTATU
FORMArekin egiten dugu topo

Biztanleria:

Hiritartasunaren kontzeptua azaltzen zaigu hemen → Hiritarra estatu batean *eskubidedun subjektua* eta *beharkizunaren objektua* izango da.

Komunitateari dagokionez, hau irudikatzeko kontzeptua nazioa izango da → Nazioarekiko bi ikuspegi gailentzen dira:

- 1) Nazio politikoa: oinarri subjektiboa du; hots, hiritarren borondate politikoari dagokio. Lehenik estatua izango dugu (antolaketa politikoa) eta, gerora, hiritarrak nor izango diren zehazten du horrek.

Estatua → Nazioa

Ikuspegi hau Frantziako Iraultzatik sortu zen (Nazionalismo Zibikoa)

- 2) Nazio kulturala: oinarri objektiboa du, sustantiboa; hots, ezaugarri komunak partekatzen dituen gizataldetzat hartzen da nazioa: hizkuntza, erlijioa ... Horrela, nazioak sortzen du estatua.

Nazioa → Estatua

Alemanian sortu zen hau (Nazionalismo etikoa)

Lurraldea:

Mugak dituen lur batez mintzo gara; hots, lurralde mugarriztatu batez. Mugen bidez zehazten dira honakoak: lurpea, lurra, barne urak, aireko espazioa eta kostaldeko itsasoko espazioa.

Subiranotasuna:

Mugarriztutako lurralde batean biztanleriarentzat erabaki lotesleak hartzeko eskumen eskusiboa da subiranotasuna. Horrek, era berean, beste aginte gune batenganako mendekotasun eza suposatzen du.

Halere, aipagarria da borondatezko muga batzuen onarpena azal daitekeela: hitzarmenak besteak beste. Era berean, legalitateak ere mugatzen du subiranotasuna.

Realpolitik → Alemanian sortutako kontzeptua eta interesetan oinarritutako erabakitzeari egiten dio erreferentzia (ez idealetan oinarritutakoa, alegia). Hau gertatu egiten da eta benetan mugatzen du subiranotasuna. Adibidez, Irak estatu subiranoa den arren, AEBk kontrolatzen du bere jarduna.

2. ESTATUEN MORFOLOGIA

Erakunde politiko hauek (Estatuak) hainbat modutara azal daitezke; hots, morfologia ezberdina izan dezakete. Horretarako lau kontzeptu baliatuko ditugu:

1) GOBERNU FORMA

Botere gorenaren jardueraren eta antolaketa moduaren forma:

- Monarkia: estatu Espainiarrean adibidez erregea da botere goren
- Errepublika: Frantzia, ordea, Errepublikako Presidenteari (Macron)

2) GOBERNU SISTEMA

Erabaki publikoak hartzeko prozesuaren gaineko kontrolen eta erantzukizunen funtzionamenduaren antolaketa forma.

Estatuaren botereen arteko harremana.

Gogoratu:

- Exekutiboa, betearazlea: gobernu
- Legegilea: legebiltzarra
- Judiziala: epaitegiak


Botere legegilea eta botere exekutiboaren arteko harremana nola gauzatzen den adierazten du.

- Adibidea: AEBtako Sistema Presidentzialista. Botere politiko exekutiboa presidenteak berak du (pertsonek berak). Jarduera hori, ez du parlamentuak kontrolatzen. Hots, ez dago harremanik jarduera exekutibo eta legegilearen artean. Presidenteak hauteskunde bidez hautatzen da, eta parlamentua beste hauteskunde batzuen bidez.
- Gurean adibidea: Urkullu dugu lehendakari. Parlamentuak hautatutakoa izan da. Guk parlamentua bozkatu dugu eta bertako ordezkariak hautatu dute lehendakaria.

Honen baitan lau gobernu sistema bereiziko ditugu:

1. BILTZAR SISTEMA:

Munduan leku bakarrean dago, Suitzan.



Hautesleek bozka ematen dute ordezkariak hautatu eta biltzarra (legebiltzarra) osatzeko. Biltzarra osatuta dagoenean, exekutibokideak izendatzen dira bertan.

- Biltzarrean bi ganbara bereizten dira:
 - Goi ganbara: senatua, lurraldearen babeserako
 - Behe ganbara: hiritarren bozaren arabera

Izan ere, Suitzan botere exekutiboa legebiltzarraren baitako batzorde lez ulertzen da, harreman oso estua da beraz.

- Suitzako gobernuak 7 kidez osatuta (2,2,2,1 + lau alderdi soilik). Aho batez hartu behar dituzte erabakiak.
Hots, parlamentua osatze duten alderdi guztiak daude gobernuan.
- Gobernuburua urtero aldatzen da errotazioz baina ez du inongo pisu berezirik, ordezkapenez gain. Aipagarria da legegintzaldia amaitzerakoan ez dela ohikoa batzordeko kideak aldatzea (egonkortasun politikoa dakar horrek).

Exekutibokide bakoitzak ministerio banaren ardura hartuko du (7 ministerio daude beraz).

2. SISTEMA PRESIDENTZIALISTA

Nolabait esatearren eta, botere legegile eta exekutiboaren arteko harremanari dagokionez, esan genezake sistema presidentzialista biltzar sistemaren aurkakoa dela. Izan ere, presidentzialistan, bi botereen arteko harremana oso-oso ahula da (harremanik ez dagoela ere esan genezake, bitarteko urri batzuk baldin badaude ere).

AEB baliatuko dugu adibidetzat. Dena den, Amerika osoan zabalduen dagoen sistema da honakoa.



Bi hauteskunde burutzen dira:

- Biltzarraren hautaketarako
- Presidentearen hautaketarako: Presidentearena izango da erantzukizun politikoa duen kargu politiko bakarra. Hots, bera izango da erabakien erantzule bakarra.

Presidenteari dagozkio honako karguak:

- Estatuburua
- Exekutibo burua: gainontzekoak idazkariak (ad. Obamaren garaian Hillary). Hillaryri ezingo litzaioke azalpenik eskatu. Horrela, idazkariak erantzukizun politikorik gabekoak dira.

Bi botereen artean harremanik ez zegoela esan arren, presidenteak:


- Mezu eskubidea du: nahi duenean legebiltzarrera jo dezake bere proposamenak defendatzera.

- Beto eskubidea du: presidenteak parlamentuak aprobatutako legeren bat indargabetu dezake.
- Impeachment prozedura: presidentearen epai politikoari dagokio. Esan bezala, Presidente da erantzukizun politikoa duen bakarra; horrela, erantzukizun hori epaitzeko gunea da Impeachment-a. Honakoa, presidenteak konstituzioaren aurkako jardueraren bat burutu izanaren susmoa dagoenean bakarrik burutu daiteke.
 - Watergate kasua: Nixon-i leporatu zioten (alderdi errepublikanoa) alderdi demokrataren espionajea burutzea bere kanpaina politikoan.
- Prozedura: AEBtan bi ganbara (ordezkari eta senatu)
 - Ordezkarien ganbarak erabakitzen du kasua ireki edo ez
 - Gero, epaiketa, senatura eramango da. Senatuak erruduntzat joz gero, presidentea kargugabetu daiteke (erantzukizun politikoa).
- Aurrekontuen legea: aurrekontuen beti lege forma dutenez, legebiltzarrak onartu beharra dute. Horrela, hein batean, legebiltzarrak botere exekutiboaren jarduna zein izango den bidera dezake.

Eskemari jarraituz:


- Presidenteak izango da idazkariak hautatu edo kargugabetuko dituenak.

3. SISTEMA PARLAMENTARIOA DUALISTA:



Semipresidentzialista ere dei diezaiokegu. Frantziako kasuari dagokio. Presidentzialista antzekoa da; ordea, harreman handiagoa dago botere exekutibo eta legegilearen artean.

Hautesleek, bi hauteskunde ezberdinetan hartzen dute parte. Hauetan:

- Biltzarra edo ordezkariak hautatzen dira
 - Errepublikako presidentea hautatzen da
- 
- Presidenteak biltzarra deusezta dezake

Gobernuburua:

- Presidenteak gobernu buru gaia izenda dezake (nahiz eta gero biltzarrak hautatu beharko duen).
 - o Gaur egun Macron dago presidente. Gero legebiltzarreko hauteskundeak izan ziren. Bertan, Macronen alderdiak gehiengo osoa eskuratu du. Nork izendatu du gobernu burua? Macronek esan zuen eta gero bozkatu zuten.
- Gerora gobernuburuak ministroak izendatuko edo kargugabetuko ditu eta horiek ministerioak zuzenduko dituzte.

Zergatik esaten zaio semipresidentzialista edo dualista (2)?


Sistema honetan botere exekutibo bi gune daude:

- Gobernu burua (gainontzekoetan lehen ministro lez ezaguna) eta ministroak (gubernua)
- Estatu burua: hainbat arlotan har ditzake erabakiak, nazioarteko ordezkaritza adibidez.

Bi horiek alderdi ezberdinen esku badaude praktikan elkar lanean egokipena.

4. SISTEMA PARLAMENTARIO MONISTA

Estatu espainiarrean, EAEn, Nafarroan, Belgikan ... Honako kasuetan da estuena botere exekutibo eta legegilearen arteko harremana (Suitzako Biltzar Sistemaz gain)



Huteskundeetan honakoa hautatzen da:

- Biltzarra.
Hemengo partaideak izango dira gerora gobernuburu hautatuko dutenak.
Gobernuburuak, gerora, ministerioak finkatuko ditu.

Gobernuburu legebiltzarraren konfiantzaz hautatzen dela esan liteke, hainbat bitarteko baitaude tartean:

- Inbestidura / Gaitzespen bozketa
- Konfiantza mozioa: gobernuburuak bere burua aurkezten du, biltzarrak beregan konfiantza duen edo ez galdegiten
- Zentsura mozioa: parlamentuak aurkezten du (orokorrean, oposizioak); aurrera eramanez gero, presidentea kargugabetuko da.

Horiez gain, parlamentuak gobernuaren gaineko kontrol praktikak ezartzen ditu:

- Asteroko gobernuaren gaineko kontrol saio bat.

3) ERREGIMEN POLITIKOA

Botere politiko errekurtsuak eskuratzeko borroka arautzen duen erakunde multzoa.

- Demokratikoa
- Ez Demokratikoa: Autoritarismoak eta Totalitarismoak

4) ESTATU FORMA

Lehen esan bezala estatuak hiru osagai dituzte:

- Herria / Nazioa
- Lurraldea
- Subiranotasuna

Estatu formaz mintzo garenean, bada, hiru ezaugarri horien konbinaketaz ari gara.

1. BATERATUA:

Agindu gehienak (guztiak ez esatearren) estatu zentraletik emango dira.

1.1. Zentralizazioa:

Egun ez dira horrelako kasu asko geratzen. Adibidetzat har ditzakegu Portugal eta Danimarka.

1.2. Deszentralizazioa:

Kasu honetan, forma bateratua izan arren, botere politiko lokalek deszentralizazio administratibo edo politikoa jaso dezakete.

- Deszentralizazio administratiboa: botere politiko lokalei onartu egiten zaie programa publiko batzuen exekuzioa (Langabetuei zuzenduriko programak, adibidez). Horrela, estatu zentralak bideratu eta garatutako politiken egokitzapena da; izan ere, tokiko entitateek ez dute botere politikoaren errekurtsorik.
- Deszentralizazio politikoa: Espainia da adibidea, bere autonomia estatutuekin.

Eskumenak + **materia** + funtzioa

Oinarrizko legeak Estatu osoarentzat berdinak izaten dira. Ordea, herrialde edo autonomia bakoitzak bere egokitzapenak egiten dizkio. (LOMCE eta HEZIBERRI ditugu adibidetzat).

- Esklusiboa: zehaztutako eskumen guztiak ente hauen esku geratzen direnean

- Partekatua: botere politikoaren eskumen batzuk gune baten gain daude eta besteak beste gune baten gain. Funtzio nagusia Gobernu Zentralak izango du baina Autonomiek ere izango dute funtziorik.
- Konkurrentea: materia berean gobernu zentralak eta autonomia gobernuak eskumen berberak izan ditzakete.

2. FEDERAZIOA:

2.1. Estatu Federala:

Botere zentral bat eskumen federalaz arduratzen da eta gainontzeko eskumenak estatuen esku geratzen dira. Kasu honetan estatuak ez dira independenteak, erakunde federalaren mende baitaude.

2.2. Estatu Konfederala:

Estatu konfederala eratzen duten estatu guztiak subiranoak dira (bakoitzak bere armada du, adibidez). Estatu subirano horiek, ordea, hitzarmen bat osatu dute. Ordea, estatu konfederal askok federalen antza dutenez, federal izatera igarotzen ari dira.

3. BOTERE LEGEGILEA: PARLAMENTUA

DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Parlamentuak kide anitzeko ordezkatzeko erakundeak dira. Ezinbesteko erakunde dira ordezkatzeko sistema politikoetan eta hauteskunde bidez aukeratzen da.

Bost ezaugarri nagusi ditu:

1. Legebiltzarra estatuaren organo asanblearioa da; hau da, kide askoz osaturiko organoa. Erakunde kolegiatua da (kide guztiek eskumen berberak dituzte).
2. Ordezkatzeko erakunde bat da. Ordezkariz osatuta dago eta, printzipioz, hiritarren asmo politikoak defendatzeko eta adierazteko organoa da.
3. Legebiltzarra erakunde iraunkorra da; estatuko gainontzeko botereekiko mendekotasunik ez duen organoa.
4. Gaur egun, parlamentuak, gizartearen aniztasuna islatzen du.
5. Herritarrek hautatutako legebiltzarkideez dago osatuta.

Lehia hauteskundeen ezaugarriak:

- Sufragio unibertsala: herritar guztiek dute bozkatzeko eskubidea. Bi motatako sufragioak daude:
 - o Sufragio aktiboa: herritar guztiek eman dezakete botoa
 - o Sufragio pasiboa: herritar orok du hautagai izateko eskubidea
- Aldikako deialdiak: hauteskundeak ezartzeko deialdiak denbora jakin baten buruan egiten dira; hemen 4 urtez behin egiten dira.
- Hautagaiak aurkezteko askatasuna
- Hauteskunde kanpainarako aukera askatasuna
- Erakunde publikoen neutraltasuna
- Bozka sekretuaren bermea: inork ez du jakingo zer bozkutzen duzun
- Bozka zenbaketa publikoa
- Eserlekuen banaketa aurrez zehaztutako hauteskunde sistema batekin lotuta egotea
- Hauteskunde arauen aplikazioen inguruko gatazkei epaia ematea

FUNTZIOAK:

Parlamentuak bost eginkizun nagusi ditu:

1. Legeak egitea (eginkizun nagusia zen XIX.mende amaieran; gaur egun ez gobernuak ere baduelako botere legegilea)
2. Aurrekontu orokorrak legez onartzea. Izan ere, gobernuak zein helburu dauzkan jakiteko baliatzen dira aurrekontu orokorrak.
3. Kontrol funtzioa: botere betearazlearen jarduna kontrolatzen du.
4. Botere betearazlearen sustapen funtzioa: gobernuaren (botere betearazlea) hautaketa
5. Gatazka politikoak bideratzea

TRESNAK:

- Interpelazio parlamentarioak
- Batzorde bereziak sortzea (ikerketarako)

Hots, erabiltzen den sistemaren arabera parlamentuek tresna gehiago edo gutxiago izango dituzte.

PARLAMENTUA ETA ALDERDI POLITIKOAK:

Esan bezala ordezkari osatutako organoa da parlamentua. Bada, ordezkariok, alderdi politikoaren egituretatik datoz.

- Hots: hemen ematen dena *agindu inperatiboa* da → politikari edo parlamentaria bera hautatu dutenen bozeramaile huts izango da eta bere hautesleek bozkatutakoa bozkatu behar du.
≠ ordezkatzeko agindua

Parlamentuan talde parlamentarioak sortzen dira.

- Maiz alderdi politikoetatik urruntzen dira. UPyDren adibidean, parlamentario bakarra izaki, ezin du bere talde parlamentarioa sortu eta derrigortuta dago talde misto baten partaide izatera.
- Talde parlamentarioa:
 - Bertako ordezkariak ez dute alderdi politiko jakin bateko pentsamendua jarraitu beharrik
 - Autonomoak bilakatu dira
 - Talde bat sortzeko 3 ordezkari beharrezko dira gutxienez eta ezaugarri jakin batzuk bete behar dituzte.

PARLAMENTUAREN EGITURA

Ganbara bakarra ≠ Ganbara bikotasuna

- GANBARA BIKOTASUNA: Ohikoagoak dira

○ Ganbara bikotasun kontserbadorea:

Goi ganbararen funtzioa behe ganbarak hartutako erabakiei betoa ezartzearena zen.

Zergatik deritzogu kontserbadorea? Izan ere, eliteaz osatutako ganbarak ziren. Horrelakoetan behe ganbarak proposamen bat aurkeztu eta goi ganbarak aztertu eta erabakiak hartzen ditu.

Ad: BHn behe ganbara komuna da (jende normalaz osatutakoa); aitzitik, goi ganbara lord da.

○ Ganbara bikotasun federala:

Lurralde banaketaren faktoreek baldintzatutakoa.

Goi ganbarak, beraz, lurralde interesen ordezkapenerako ganbarak izango dira.

Ad: Alemanian, estatu federal bakoitzeko ordezkari bat hautatzen da goi ganbararako.

Gerora, ordea, **behe ganbarak**

- GANBARA BAKARRA:

Organo bakarrak betetzen ditu aurretik aipatutako funtzio guztiak. Orokorrean, estatu zentralizatuetan izaten da ganbara bakarra (estatu zentralizatu guztietan ez da bakarra izaten, baina bai askotan: Danimarka, Grezia, Finlandia, Portugal eta abar).

PARLAMENTUAREN BARNE ANTOLAKETA: ORGANOAK

Legebiltzar edo parlamentua hainbat organoz dago osatuta.

- LEHENDAKARIA

- MAHAIA: Hauek parlamentuaren egutegia betetzeaz, parlamentu eraikinaren mantentze lanak egiteaz eta abarraz arduratuko dira. Egiten diren proposamen guztiak mahaiaren aurretik pasa beharko dira tramitatu aurretik eta honek filtro lana burutuko du.

- BATZORDEAK: Funtzio legegile eta kontrol funtzioa betetzeko eraginkorrenak dira. Batzordeok bi taldetan bereiz ditzakegu:
 - Batzorde Iraunkorra
 - Ikerketa Batzordea

- BOZERAMAILEEN BATZORDEA: Organo politikoa da, eta talde politiko guztien ordezkari banak osatzen du.

Adibidez, gaurko Eusko Legebiltzarra: Joseba Egibar (EAJ), Maddalen Iriarte (EHBildu), Lander Martinez (Podemos), Jose Antonio Pastor (PSOE) eta Borja Semper (PP) dira. Organo hau mahaiarekin lankidetzan aritzen da eta alderdi politikoek duten jarduna aztertzen dute. Era berean plenoen antolaketa eta gaiez arduratzen dira.

Bertako kideekin batera gobernukide bat ere aritzen da.

- DIPUTAZIO IRAUNKORRA: Legebiltzarreko ohiko bilkuretatik kanpo biltzen diren taldeak dira, urtean bi bilkura egiten dituztenak. Organo zabala da eta orokorrean ez du funtzio legegilerik hartzen.

- TALDE POLITIKOAK: Legebiltzarkide guztiek bere burua talde politiko batean kokatu behar dute. Taldeok lirateke ordezkarien ildo ideologikoa bilduko luketenak, eta hainbat eskubide dute (hala nola ekimen legegilea aurrera eramatekoa).

- PLENOA EDO OSOKO BILKURA: Hau litzateke legebiltzarreko organorik garrantzitsuena; itzan ere, kide guztiek osatzen duten taldea da. Bertan garrantzia handiko eztabaidak izaten dituzte, baita garrantzia handiko erabakiak hartu ere.

PROZESU LEGEGILEA:

Proposamen bat lege bilakatzeko zein prozesu eraman behar den aurrera. Prozesu legegileaz ari garenean bi prozesu bereiz ditzakegu:

- Arrunta: (Eusko Legebiltzarra)

- Berezia:

4. BOTERE BETEARAZLEA: GOBERNUA

DEFINIZIOA

Ezinbesteko erakundea da, hainbat oinarri dituena:

- Kide anitzeko erakundea izatea
- Sail anitzekoa
- Gobernuburuaren zuzendaritza
- Erantzukizun politikoa (denak daude honen mende)
- Elkartasuna (denak dira gainerakoek hartzen dituzten erabakien erantzule)

FUNTZIOAK

Funtzio orokorrak → Edozein gobernuaren kasuan

1. Gobernu funtzioa:

Gobernuak estatuaren politikaren erabaki nagusiak diseinatu eta abiarazten ditu.

Politika ildo nagusien zuzendaritza dagokio beraz.

2. Funtzio betearazlea:

Gobernuak, administrazioaren laguntzaz, botere legegilea onartutako arauak gauzatu behar ditu.

Sistema parlamentarioetan:

1. Politika nazionalaren zuzendaritza

- Aurrekontu eta ekonomiaren plangintza
- Iniziatiba legislatiboa
- Beste erakunde konstituzionalekiko harremanetan hainbat eskuhartze:
 - Legebiltzarraren deuseztatzea (botere legegilea)
 - Barkamen eskaera (botere judiziala)
 - Zenbait erakunde kideren izendapena (epaitegi konstituzionala)
- Nazioarteko harreman guztiak gobernuaren esku geratzen dira

2. Estatuaren administrazioaren zuzendaritza

- Politika publikoen implementazioa
- Administrazio antolaketa

3. Estatuaren defentsa eta ordena publikoaren bermea

- Alarma, emergentzia eta setio egoera (egoera horietan ohikoak diren hainbat eskubide murriztu egiten dira)

4. Funtzio normatiboa:

- Lege proposamenak eta dekretuak (gobernuak zuzenean onartu eta indarrean jartzen dituen arauak)

5. ESTATU ESPAINIARRA

OSAERA:

- Presidentea
- Presidente-ordea(k)
- Ministroak

ANTOLAKETA:

MINISTROEN KONTSEILUA:

Osoko bilkura, karterarik gabeek eta estatu idazkariak ere parte har dezakete.

Izaera bikoitza: erakunde politiko eta administratiboa da

BATZORDE DELEGATUAK:

(Ministroen kontseiluaren organo laguntzailea)

Ministroen kontseiluak sortuak

Batzordeak presidente eta idazkaria ditu

Funtzioa: ministerioen kontseilura eramango diren gaiak errespetatu, ministerio guztiei ez dagokien arazoei erantzun eta koordinazioa

AHOLKU ETA LAGUNTZARAKO ERAKUNDEAK:

- Estatu idazkariak
- Estatu idazkarien eta idazkari-ordeen batzorde orokorra
- Gabinetea

6. FEDERALISMOA

EZAUGARRIAK:

- Prozedura zehatz bat ezartzen da estatu federalak duen egituraren gain; hots, erakundetze federalaren gaineko *bermea* ezartzen da. Horrela, garapen legeari eta exekuzioari dagokionez Autonomien esku daude, eta modu unilateralean alda daitezke.

- Autonomia hiru mailatan emango da:
 - *Erakundeak* sortuko dira autonomikoki
 - *Eskumenak* hartuko dituzte
 - Autonomikoki *finantzatuko* dira

- Interes orokorraren *definizioa* osatu eta bertan parte hartzen dute

Adibidetzat dugu Alemania.

Bermea:

Arau gorena konstituzio federala da (ikus Alemania eta AEB). Ordea, estatu federatu bakoitzak bere konstituzioa du.

Arau goren horiek sistemaren erreformak ezartzen ditu. Erreforma horiek baldintza batzuk bete behar ditu:

- Erreforma baldintza malguak (3/5)
- Erreforma baldintza hertsia (2/5)

Sistema honetan kultura politikoak eta balio politikoek agintzen dute, kultura politikorako hainbat balore ezartzen direlako.

Eskumenak:

Erakunde autonomia:

Estatu autonomoek berezko erakundeak dituzte; hau da, berez sortu dituzten hainbat erakunde dute. Erakunde horiek botere betearazle, legegile eta judiziala dituzte.

Erakunde horiek autoerregulazio bidez funtzionatzen dute; hots, bere buruaren jarduerak bideratzen dituzte. Horrela, beste erakundeek ezin diote esan nola antolatu behar diren.

Autonomia finantzarioa:

Neurri handi batean, zehaztutako estatuak bere politikaren jabe dira eta badituzte horretarako errekurtsoak (propio edo transferituak izan daitezke)

- Propioak: zerga zehatz batzuk jasotzeko eskubidea izaten dute
- Transferituak: gobernu federalak beste gobernuetara dirua ematen die elkartruke baten bidez
 - o Baldintzatu gabeak: emandako diru hori nahi dutenean gasta dezakete estatuek
 - o Baldintzatuak: helburu egokiak dituen programa batean erabiltzeko izango dira (hots, gobernu federalak baimendu beharko du)

Orokortasunaren definizioan parte hartzea:

Parte hartze honetarako hiru aspektu azpimarratu behar ditugu.

- Federalismoaz ari garenean ganbara bikotasunaz ari gara; hots, lurraldeek ordezkarietarako ganbaraz.
- Bigarren ganbara horren ardura estatu federatuen eskumenak aldatu edo landu ditzakeen edozein arauri onarpena ematea da.
- Bigarren ganbara hori hautatzeko zenbait era daude:
 - o AEBn hautaketa zuzena
 - o Alemanian estatu federatuetako (Länderretako Gobernuak) hautatzen dituzte eta estatu bakoitzeko ordezkari guztiek beren postura adostu behar dute. Zeharkako hautaketa.

- Australian parlamentuek. Zeharkako hautaketa bidez

Aipagarria da hainbat estatu federaletan, estatuen arteko koordinazioa burutu ahal izateko organo mistoak daudela. Hauek gobernu arteko batzordeak dira eta “intergovernmental committees” deritze.

ESTATU FEDERAL MOTAK:

Federalismoaz mintzo garenean hainbat tipologiaz ari gara. Bi bereizketa burutu ditzakegu.

Alde batetik, federalismo simetriko eta asimetrikoa daude:

- Simetrikoa: estatu federatuek dituzten eskumenak berberak dira. AEB.
- Asimetrikoak: estatu federatuen artean ezberdintasunak dituzte eskumenei dagokienez. Kanada (Quebec).

Bestalde, federalismo lehiakorra eta lagunkoia ditugu:

- Lehiakorra: estatu federatuen arteko lehia abiarazten da. Alemania.
- Lagunkoia: estatu federatuen arteko ezberdintasunak lausotu eta txikitzen ahalegintzen dira.